

PRENTSA AGIRIA

2024KO BAIONAKO BESTEN AFITXA Bozkara! 2024ko otsailaren 2a ostiraletik 18 igandera



Sophie Courades, Faustin Ducassou, Alfredo León Mañú, Charline Pichot eta Janick Tanguy egileen sorkuntza grafikoak aurkeztu zaizkio prentsari otsailaren 2a ostiral honetan Baionako Historia eta Euskal Museoan. Sortze berezi horiek Herriak eta Besten herritik Kanpoko Batzordeak antolatu afixten lehiaketatik jalgi dira guztiak eta linean edota Turismo Bulegoan eta Euskal Museoan diren erakusketetan ikus litezke. Jendeei bozkatzeko aukera 2024ko otsailaren 2 ostiralaren eguerditik goiti emanen zaie linean bakarrik.

Baionako hurrengo bestetarako afitxa bakarra hauta dezaten eskatzen zaio jendeari. Aurten linean bakarrik bozkatzen ahalko da horretarako den **fetes.bayonne.fr** webgunean, otsailaren 2 ostiralaren eguerditik goiti. Bost aukerak Turismo Bulegoan izanen dira erakusgai, Euskaldunen plazan, biharamunetik, hau da, larunbata 3a 2024ko otsailaren igandea 18a arte (zabalik astelehenetik larunbatera, 9:30etik 13:00etara eta 14:00etatik 17:30era). Euskal

Museoaren Argialdean ere izanen dira ikusgai bisitarientzat soilik, eta ororentzat ostegun arratsetan (Ostegunak Museoan ekitaldiaren harira).

Jendeen bozek azken emaitzarako % 60ko balioa ukanen dute; gainerateko % 40a herritik kanpoko batzordearen bozarako da.

Afitxen lehiaketaren irabazlearen izena 2024ko martxoaren 5ean emanen da ezagutzera Jean-René Etchegaray Baionako auzapezak eman prentsaurreko batean. Aldi berean, Herriaren sare sozialetan hedatuko da.

Lehiaketari loturiko prozedura, urtero bezala, uxer baten zaintzapean egiten da. Irabazleari 4000 € emanen zaizkio sari; gainerateko lau sortzaileei 500 € emanen zaizkie.

2024rako lehian diren 5 hautagaiak

Sophie Courades dugu 2024ko Baionako Besten afitxarako lehiaketako bost hautagaietako bat. Pauetar horrek jendeen arteko giro atsegina adierazi nahi ukan du batez ere zuri-gorritan, bestaren indarra azalduz eta bestazale guztiak xingola batez elkar lotuz. Musika tresnak, tronpeta, txistua, trikitixa, atabala ageri dira haren moldaketan, bai eta jantzi tradizionalaz jantzi dantzari bat ere, koroak eta, Leon erregea noski.

Faustin Ducassou Condé eskolan (Bordele) 3. ikasturtea egiten ari da diseinu grafikoko Bachelor ikasketetan. 22 urterekin, Faustin-ek transmisioa azaldu nahi izan du, bere familia «handiarekin» txikitatik partekatzen dituen kantuarena, baloreena, tradizioena. Baliatzen duen jokamolde grafikoa esku bidezkoa da, marrazkiaren, margolaritzaren eta grafismoaren mugetan.

Alfredo León Mañú Nafarroan bizi da, Iruñetik hurbil. Ongi ezagutzen ditu Sanferminak eta 2014an irabazi zuen jadanik Baionako lehiaketa. Oraingoan oso bestelako afitxa dakarkigu. Estilo inozo batekoa da, kolore bizi eta marrazkiekin; pertsonaiak besta istoriotxoak kontaktzen ari zaizkigu besta osoan zehar. Giro bukolikoa 5 besta egun eta gau iragarri eta ospatzeko.

Euskal Herrian sortu eta Baionan bizi den arte zuzendari independentea dugu **Charline Pichot** eta lehen aldiz aurkeztu da Baionako Besten afixarako lehiaketara hainbat urtetan irrikan izan ondoren! Ideia nagusia olinpiar jokoen inguruan kokatu du. Hemen ere, Baionan, gure olinpiar jokoak ditugula azaldu nahi du eta orori zabalik diren diziplinen bitartez parte hartzen dela horietan: bestazaleen lasterketa, euskal dantzak, pilota, edo, xelebreago dena, espartin jaurtiketa... Haren afitxan, aurten, Leon erregeak piztuko du olinpiar sua bestazale bakoitzaren bihotzean.

Janick Tanguy Angelun bizi da. Bretoia da jatorriz eta grafista lanbidez, eta bestak urtetan zehar ezagutu ditu bertakoa baitu senarra. Egiten duen proposamena moderno eta inozo gisa definitzen du berak eta besten izpiritua ahal beste jenderen esku jartzen du. Bihotz oneko topaketa horren alaitasuna eta besta izpiritua adierazi nahi izan du. Proiektuaren inguruan ia zortzi urtez hausnarketan izan denez, bozka kopuru handiena bilduko duela espero du.

Baiona Hiriaren prentsa harremanetarako - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr

**FÊTES de
BAYONNE**

**CONCOURS de
L’AFFICHE 2024**
2024ko AFITXAREN LEHIAKETA


VOTEZ !
BOZKA EZAZUE

MIDI **02.02** ➔ **18.02** MINUIT

VOTEZ EN LIGNE SUR FETES.BAYONNE.FR
BOZKATU FETES.BAYONNE.FR WEBGUNEAN



SOPHIE COURADES



FAUSTIN DUCASSOU



ALFREDO LEÓN MAÑÚ



CHARLINE PICHOT



JANICK TANGUY

FETES.BAYONNE.FR

Bayonne
BAIONA-PAYS BASQUE